



Haur Eskoletan izena emateko epea zabalik da maiatzaren 28ra arte

HERRIAK ▶ Eskualdeko zazpi herrik izango dute 0-3 urte arteko haurrentzako eskola

INFORMAZIOA ▶ Udaletxeetan lor daiteke informazioa eta eman daiteke izena ▶ 5

FERNANDO OTAZUA ▶
BASO ELKARTEA

«Zerbitzuak zabaltzen ari gara eta bi irudi sortu»

Gipuzkoako Baso Elkarateak egoitza berria du Tolosan ▶ 2

TOLOSA ▶

'Marionetas del pene' antzezlanaren Leidorren

Yllana konpainiak bihar 22:30ean eskainiko du ▶ 3

ALBIZTUR ▶

Etzi, bertso afaria, Kultur Astea hasteko

Gaurko zegoen hitzaldia asteartera atzeratu dute ▶ 7



Antolatzaileak gustura Kultur Asteko partaidetzarekin

BERROBI ▶ Lehengo astean Berrobin egin zen Kultur Astearekin oso pozik agertu dira antolatzaileak, egindako ekitaldiekin eta izandako partaidetzarekin. Ostegunean Iriarte jatetxe-ko Felix Belauntzararen sukaldariak emandako erakusketak —argazkian— erantzun ona izan zuen. Ostiralean eskolako ikas-

leek jaialdi bikaina eskaini zuten dantza, abesti eta antzerki desberdinekin eta Etxolako aretoa jendez bete egin zen. Larunbatean berriz, gaztetxoaren arteko pilota partiduak eta toka txapelketa izan ziren eta txakoli eta sagardo dastaketarekin amaitu zen aurtengo Kultur Astea. HITZA ▶ 6

UDAKO ESKAINTZA

Klaseak 12€

ARALAR

Informazio gehiago
autoeskolan

Urdaneta, 28 • ORDIZIA
Tel.: 943 88 16 51

EKONOMIA ▶

Hazia erein, eta fruituak jaso

Erronka berrien aurrean lanean jarraitzen du Gipuzkoako Baso Elkarteak; egoitza berria zabaldu du, San Esteban auzoan



Goian, hainbat erakundetako ordezkariak, Gipuzkoako Baso Elkartearen egoitza berriaren inaugurazioan. Behean, apaizak egoitza bedekatu zuen unea, ordezkariak eta baso-jabeak atzean direla. LEIRE MONTES

FERNANDO OTAZUA ▶ GIPUZKOAKO BASO ELKARTEAREN GERENTEA

«Zerbitzuak zabaltzen ari gara, eta bi irudi berri sortu ditugu»

Bulego aldaketa «premia» zela eta, egoitza berriarekin «pozez zorrotzen» agertu da Fernando Otaua Gipuzkoako Baso Elkarteko gerentea.

Egoitza berriarekin kontent? Pozez zorrotzen! Izan ere, premia genuen. Egun egiten ari garen lanak leku eta langile gehiago eskatzen zituen. Eta Tolomendiri esker, eta Udalaren laguntzarekin, egia bihurtu dugu amesten genuena.

Gipuzkoa osoko bazkideak dituzue. Eskaera amankomunikatu ba al dago?

Hasieratik bat izan da nagusi: egurraren prezioa finkatzea. Buru-belarri aritu gara horretan urte hauetan guztietan.

Pixkanaka zerbitzu berriak eskaintzen ari zarete...

Aurrerapenak ditugu, kalitatea neurtzeko baliabideak, zerbitzuak zabaltzen ari gara... Eta bi irudi berri sortu ditugu.

Zein da haien ardura?

Sozietate mugatu bat eratu dugu: Basoekin S.L. Hainbat bazkidek ezin dituzte beren lurrrak zaindu, eta gestio hori bazkidearentzat egiteaz arduratzen da elkarteak. Bestalde, hainbat mendi eta lur galtzeko zorian daude. Leku horiek berreskuratzeko eta oso erakarriak ez diren mendietan inbertsioak egiteko Basoa Fundazioa sortu dugu. Era berean, herritarrak sentsibilizatzea

eta proiektu horietan parte-hartzea bultzatzea du xede fundazioak.

Kalitatea ere gaketzak jotzen duzue.

Basoa-gestio jasangarriaren egiaztapenean ere ari gara lanean. Adibidez, egur kontsumitzaileak jakin dezala, kalitateko label baten bidez, arriskuan ez dagoen baso batetik datorrela hark erositate egurra.

Zer egin behar da elkartearen bazkide izateko?

Baldintza bakarra baso-jabea izatea da. Berdin du lur zati hori zein neurrikoa den. Egoitza berrira deituta (943 65 29 20) jasoko ditu argibideak. ◀

LEIRE MONTES

Uholde batek, 1983. urtekoak, elkartu zituen. Atsedenaldira baten ondoren, 1986an ekin zioten berriro lanari Gipuzkoako Baso Elkarteak. Eta egun berriro eta indartu dute haien jarduna. Ereindako haziek fruituak ematen jarraitzen dute. Eta egoitza berria jasotzen dira, gainera: ostiralean zabaldu zuten, San Esteban auzoan.

Hastapeneko garai haietan 60 bazkidek osatzen zuten Gipuzkoako Baso Elkarteak. Egun, probintzia osoko 2.399 bazkide ditu elkarteak. 40.000 baso-hektarea dira guztira. Tolosaldeko baso-jabeak ugari izan dira hasieratik. Gaur egun, Baso Elkartearen 2.399 bazkideetatik 573 dira eskualdekoak; hektareei dagokienez, 40.000tik 5.000 kokatzen dira Tolosaldean.

Egoitza berria, lan berriak

1983an sortu zenetik Tolosan izan du bulegoa elkarteak. Baina ostiraletik egoitza berria du, San Esteban auzoan. Tolosako Udalak utzi ditu lokalak. Pabiloi berriaren eraikuntzarako 360.000 euroko inbertsioa egin dute; Gipuzkoako baso-jabeek finantziatu dute. Mendi Nekazaritza elkartearen —tarteran, Tolomendi— eta Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzaren laguntzarekin.

Egoitza berria ezetik, lan berriak ere baditu elkarteak. Orain arte egindako lanez gain, zerbitzuak zabaldu egin ditu. Egun besteak beste, baso-gestio jasangarriarekin eta egur ustiapenen egiaztatzeekin lotutako proiektuak ditu ardatz.

Gipuzkoako Baso Elkarteaz gain, beste bi erakunde bulegoak hartuko ditu San Estebango egoitzak: Basoa Fundazioa, eta Basoekin sozietate mugatua.

GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA ▶

Sorrera data. 1983.

Bazkideak. 2.399; horietatik, 573 dira Tolosaldekoak.

Lur eremua. 40.000 hektarea; 5.000 daude Tolosaldean.

Egoitza. Laskorain Goikoa industria gunea, San Esteban auzoa. 943 65 29 20.

PRESOAK ▶

Azkaratek ez ditu epailearen baldintzak onartu

Gaixotasun larri eta sendaezina duela, Alcalako espetxean jarraitzen du

ERREDAKZIOA

Manu Azkaratek ez ditu epaileak ezarritako neurriak onartuko, «duintasunaren aurkakoak» direlako. Hala azaldu zuten Itziar Arratibel Azkarateren lagunak eta Jon Enparantza eta Aitor Ibero abokatuek herenegun Donostian egindako agerraldian.

Javier Gomez Bermudez Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraleko epaileak baldintzapeko askatasuna ukatu zion preso tolosarrari, baina hirugarren gradua onartu zion, apirilaren 19an. Horrekin batera, hainbat baldintza ezarri zizkion. Besteak beste, eskumuturreko telematikoa eramatera behartzen zuen epaileak, etengabe kontrolatuta egon zedin. Gainera, bere programaren jarraipena egingo zuen talde batek, eta nahi zuenean bere etxebizitzara sartu; Azkaratek ordutegi jakin bat izan beharko zuen etxetik atera eta sartzeko, eta talde horri jakinarazi.

Erabakiaren arrazoiak

Arratibelen esanetan, bete beharreko neurriak «duintasun ororen kontrakoak» dira, «preso edo askatasun baldintzatuan dagoen pertsonaren umiliazioa besterik ez dutena bilatzen». Azkaratek salatzen duenez, neurriak ez dio hari bakarrik eragiten, baita bere inguruan bizi diren lagun eta senideei ere.

Bestalde, Azkaratek dagokion egoera askatasunezkoa dela berretsi du; «baina ez edozein prezioetan, eta xantaia bezala erabiltzen diren kontrolen neurripean». Euskal presoen kolektiboarekiko atxikimenduagatik ez dituela neurriak onartu esan du, era berean: «Horrelako neurriak kolektiboaren aldarrikapen kontrakoak dira, eta beste xantaia neurria».

Azkarate gaixotasun larri eta sendaezina duelako aske zegoen 1992. urtetik, baina aurtengo urtarrilaren 14an atxilotu zuten berriro. Alcalako espetxean dago egun.

JUDO A ▶



Javier Ayala judoka. HITZA

Javier Ayala tolosarra, Espainiako Txapelketara

Ainhoa Bengoetxea azpitxapeldun izan da Euskadiko infantil mailako Txapelketan

I. ETXEBESTE

Javier Ayala judoka tolosarra Espainiako Txapelketarako sailkatu berri da, kadete mailako Euskadiko Txapelketa irabazi ostean Durangon Espainiako selezkioko judoka baten kontra aritu, eta hura mendeen hartu duelako.

Hiru konbate irabazi behar zituen Ayalak Espainiako Txapelketarako sailkatzeko. Alde txikiarekin, baina aurkariak irabazi egin zion lehen. Bigarrenean zorrotz aritu zen tolosarra, eta irabazi egin zuen gehiengo puntuazioarekin —Ippon—.

Hirugarren konbatea has-tear zela handia zen jokalarrien arteko presioa, eta Ayalak erraz lortu zuen garaipena. Hala, Euskadiko selezioarekin jardungo du Valladoliden, hilaren 28tik 30era, jokatu den Espainiako Txapelketan.

Bengoetxea, bigarren

Ainhoa Bengoetxeak Euskadiko Txapelketan hartu zuen parte, bestalde, gazte mailan (-48kg). Konbate bakarra galdtu zuen tolosarrak, eta Judo taldekoek adierazitakoaren arabera, galtze hori «ezen oso garbia izan» epaileen aldetik. Fisikoki oso indartsua den judoka da Bengoetxea, eta horixe erakutsi du berriki, Euskadiko Txapelketako azpitxapeldun izateko lortu duelako. Lehiaketa bikaina egin zuen tolosarrak.

ANTZERKIA ▶

'Marionetas del pene' lana Leidor aretoan

Bihar izango da emanaldia 22:30etik aurrera; sarrerak Kultur Etxean salgai

IRATXE ETXEBESTE

Marionetas del pene: ¡Abajo los pantalones, arriba la imaginación! antzezlan eskainiko du Yllana konpainiak bihar, 22:30etik aurrera, Leidor aretoan. Emanaldirako sarrerak salgai daude Kultur Etxean bihar goiza arte (943 67 03 83); ikuskizuna baino ordubate lehenago leihatilari izango dira.

Australiar, Ingalaterran eta Amerikako Estatu Batuetan arrakasta handia lortu ostean, Euskal Herrian dira peneflexian jarduten duten aktoreak. Figurak, txotxongiloak eta panpinak egiten dituzte zakilarekin eta barrabilekin Victor Masanek eta Luis Bondiak, eta emanaldia egiteko 130 aktoreen artean hautatu ditu biak ikuskizunaren sortzaileak, David Friendly australiarrek. 40 bat figura ezberdin egiteko gai dira aktoreak haien zakil eta barrabilekin.

Australiar, unibertsitateko festa horietako batean sortu omen zuen ikuskizuna Friendlyk Simon Morley lagunarekin. «Galtzak jaitsi genituen, eta figurak egiten hasi ginen gure zakilekin eta barrabilekin. Jendeak hainbeste algara eta barre sortu zuenez, ikuskizun bat egitea otu zitzaigun». Oinarritzko izena *Puppetry of the penis* duen ikuskizuna Londresera, New Yorkera eta Madrilerara heldu da, besteak beste, eta harrera ona izan du ikus-entzuleen aldetik. «Txiste baten gisan hasi zen guztia; ez nuen sekula pentsatu bi mutilak haien zakilekin figurak nola egin behar diren erakutsi behar izango nienik», dio David Friendlyk.

Lilian Caro aktoreak aurkeztuko du ikuskizuna. Antzezlanak zertan datzan azaldu ondoren kamara batekin ariko da, eta pantaila handian erakutsiko ditu aktoreek egiten dituzten figuren lehen planoak; biluzik irtengo dira eszenatokira Masan eta Bondia. Hala ere, *Marionetas del pene* ez da zakilen inguruan hitz egiten den sexuari buruzko ikuskizuna. Zakilekin lan egiten dute, hori da kontua. «Hamar panpin

ikustean beso edo ukalondo bat ikustea bezala da, ezin da sinestu zakilarekin figura horiek egitea dagoenik. Sorpresaren ostean, baina, beti dator barrea», diote aktoreek.

Eszenatokia egiten dituzten 40 bat figuren artean, aktoreek badituzte batzuk besteak baino gogokoago: Ness lakuko monstroa, *hot dog*-a eta barraskiloa. Pisako Dorrea, helikopteroa eta sesamo haziak eta guzti dituen hamburgesa dira, esaterako, aktoreek egiten dituzten irudietako batzuk. Bondia, bestalde, zakila desagerraraztea lortzen duen aktore bakanetakoa da.

Simon Morleyri anai gazteak zakilarekin hamburgesa bat nola egin erakutsi zionean hasi zen istorioa. Egun horretatik aurrera, bi anaiek lehiatzen hasi ziren figura mordoa lortu arte. Geroago Simon Morleyren laguntzaile artistikoa agertu zen: David Friendly, eta biekin jarri zuten abian ikuskizuna; 1998an egin zuten debuta Melbourne (Australia), eta hurrezkeror arrakasta izan du egondako leku guztietan. Gaztelarazko bertsoian Victor Masan eta Luis Bondia dira zakilekin eta barrabilekin figura ugari egiten dituztenak.

Ikuskizun ezberdina da, ez bairik gabe; (sexu gaiekin zerkusua txikia baina peneflexiarekin lotura handia duena). Arduradunek esandakoaren arabera, umore handiko pertsonen dago gomendatuta.

Haur antzerkia liburutegian

Gaur, bestalde, haur antzerkia izango da liburutegian, arratsaldeko sei etatik aurrera, 7 urtetik gorakoentzat. Berrobi-ko ikastetxeko ikasleek *Juul* lana antzeztuko dute Kultur Etxeko areto nagusian.

Iraintzea hitzez jotzea da. Horixe azalduko dute Berrobi-ko eskolako haurrek Kultur Etxera agertzen diren aurrean. Antzezlan prestatzeko lan handia egin dute ikasleek, eta Tolosaldeko haur guztiak egiten diete gonbitea *Juul* ikustera joan daitezten. Antzezlan ikusteko ez da ordaindu behar.

MENDIA ▶

Bazanera irteera antolatuta du Alpino Uzturrek

Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatuta du iganderako Baztan aldera. Izpegitik Elizondora bidean, Auza (1.305m), Argañeta (1.003m) eta Alba (1.074m) mendiak igoko dituzte mendizaleek; guztira, 8 ordu inguruko ibilaldia izango da. Irteera 07:00etan izango da Pablo Gorosabeletik, eta izena emateko epea zabalik da.

OLINPIADAK ▶

Eskolarteko Olinpiaden itxiera etzi arratsaldean

Tolosako Eskolarteko 32. Olinpiadari amaiera emango zaie etzi, itxiera ekitaldiarekin; 17:00etan hasiko da azken ekitaldia atletismoko finalekin. Mila ikasle inguru eta eskualdeko 21 ikastetxe ari dira parte hartzen Tolosako Ekinbide Etxeak (CIT-TEE) kirol arduradunekin eta Udaleko Kirol Departamenduarekin antolatutako olinpiadan.

MUSIKA ▶



Kanta Cantemus koruaren kontzertua larunbatean izango da. HITZA

Kanta Cantemus koruaren kontzertua

Kanta Cantemus koruak kontzertua eskainiko du larunbatean Santa Klarako komentuko kaperan 20:30etik aurrera. «Euskal Herrian eta Espainian elkarrekin emango dugun kontzertu bakarra izango da, eta Dante Andreo musikari argentinarraren obra bat estreinatuko dugu bertan», diote koruko kideek. Ahots zuriko bi abesbatza eta gizoneko abesbatzarentzat idatzi zuen obra hori duela bi urte, eta abeslariarekin batera bi esatari ariko dira: Irene Larraza, kontzertuko aurkezlea eta Xabier Ormazabal Hodeietzeko kidea. Bi abesbatzak hiru taldetan banatuko dira kantu hori abesteko. Gainera, Hodeietz abesbatzak Xabier Sarasola musikari beasaindarraren *Neskak'ederra* izeneko obra abestuko du. Lehen aldiz kantatuko dute obra hori Tolosan.

GIZARTEA ▶

Merkatariei zuzendutako diru laguntzak abian

Merkataritzako Laguntza Teknikorako Bulegoak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak urtero ematen dituen eta merkatariei zuzenduta dauden diru laguntzak argitaratu dira jada. Horiei buruzko epeak eta baldintzak jasotzeko telefono zenbaki honetara dei dezakete merkatariek: 943 16 06 73.

TOLOSA KUP ▶

Tolosa Kup-en bazkarirako txartelak salgai

Tolosa Kup-ek antolatutako festan hainbat ekitaldi izango dira larunbatean. Horien artean, bazkaria da bat, eta bertara joan nahi duten guztiak txartelak erosi behar dituzte alde aurretik. Bada gaur, osteguna, da txartelak erosteko azken eguna, eta antolatzaileek adierazi dute, tabernetan daude txartelak salgai.

MENDI-ALDE
Eguneroko menuak eta karta **Jatetxea**
Bataioak, Jaunartzeak, ...
San Esteban auzoa, 39 • © 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegia-Altzo-Amezket
Abaltzisketa-Albiztur. Osasun zentroa: 943 65 32 12

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03 (asteazkenak)

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etxea: 67 24 11

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdiak: 46 11 11

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispensarioa: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 943 67 25 36

▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88 - 943 - 65 14 25

▶ Ertzaintza: 943 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerbitzuen mankomunitatea: 69 39 30

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Tolosa M. I. Kale Nagusia 7 (Tolosa). Telf.: 943 67 06 48.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18. tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetaaldea. 687 41 01 18.

anoetaaldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Tolosa edo Ibarra. Ingeles familia batek etxe bat behar du alokairuan abuztuan, Tolosan edo Ibarra. 943 67 00 52/943 67 12 75.

VILLABONA ▶ KULTURA

36ko Gudako kantuak bihar Tapiarekin

'Agur Intxorta maite' ikuskizuna izango da Gurean, 22:30etik aurrera

GARAZI AZKUE

Orain bi urte, Joseba Tapia musikari lasartearrak, Gerra Zibileko euskal kantutegia jaso zuen, Koldo Izagirre idaztearekin batera ikerketa lana egin ostean.

Diskoa kaleratu ondoren, kantaldiekin hasi zen Tapia. *Agur Intxorta maite* emankizunarekin dator orain musikaria. Tapiarekin batera igoko dira taula gainera, Arkaitz Miner mandolinarekin, Simone Lambergts bibolinarekin edota Jexux Mari Garmendia atabalarekin. Joseba Tapiak, berriz, gerra aurreko tonoz ezberdinetako bost esku-soinu erabiliko ditu.

Joseba Tapiaren hirugarren lan monografikoa da, *Apoaren edertasuna* eta *Quebec* lanen ostean

Agur intxorta maiteren baitan, izen bereziak dituzten kan-



Joseba Tapia. TOLOSALDEKO HITZA

tuak ageri dira; hala nola, *Fasizistak Donostian, Madrid apurturen* edo *Gerrako gure ibilerak*, hau da, «36-37ko kantutegi antifaxista».

Ikuskizun bitxia eskainiko du, beraz, ostiralean Joseba Tapiak Villabonako Gurea zinemaren Kontzertua 22:30ean hasiko da.

AIZTONDO ▶ GIZARTEA

Bordeleko ferira joateko autobusa antolatu dute

Izena emateko epea gaur arte luzatu du Aiztondo zerbitzuen mankomunitateak

G. AZKUE

Urtero antolatzen dute Bordeleko feria, eta ia urtero antolatzen dute autobusa inguru hauetan hara joateko. Aurten ere, izena emateko aukera izango du joateko asmoa duenak. Hasiera batean epea maiatzaren 14an bukatzen bazen ere, luzatu egin dute, eta gaur ere

izango da izena emateko aukera.

Feria honetan, nazioarteko pabilioia, munduko 40 herrialdetako azokekin; ibilgailuen pabilioia, era guztietako ibilgailuekin; edota, nekazaritza aretoa aurki daitezke, askotariko ganaduak eta Akitaniako beste produktuak egongo dira bertan.

Izena emateko, NANA aurkeztu beharko da, sarrerak pertsonalak izango baitira. Bidaia, maiatzaren 22an izango da, larunbat honetan. Informazio gehiagorako, Aiztondoko bulegoetara jo beharko da, edo, 943 69 39 30 telefonora deitu.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Erakusketa eta ikastaroa Maiatza Saltsan

Sükrü Karakus turkiarraren erakusketa gaur inauguratuko dute, 20:00etan Atxulondon

G. AZKUE

Maiatza Saltsanek aurrera darrai, eta izenak dioen bezala, *Denok batera erabat!* kultura ezberdinen arteko elkarlanarekin bat osatu dute egitaraua.

Kenyako errefuxiatu kanpamenduko umeen marrazkiak kendu ostean, beste margolari atzerritar baten lanak datoz hurrena. Gaur inauguratuko dute, 20:00etan, Sükrü Karakus margolari turkiarraren

margolan erakusketa, Atxulondo kultur etxean. Erakusketa hau, maiatzaren 30a arte egongo da irekita.

Eta bihar, berriz, Senegal lurraldearen txanda izango da, bertako Jum-Jum taldeak perkusio ikastaroa eskainiko du bertaraten direnentsat. 19:00etan hasiko da, 21:00ak arte. Eta larunbatean marokoar afaria izango da, bertara joateko sarrerak Atxulondo jatetxean daude salgai.

ZIZURKIL ▶



Ipuin lehiaketako liburuxkak aurkeztu zituzten. TOLOSALDEKO HITZA

Teodoro Hernandorena liburuxka

Pasa den urteko abenduaren bukaeran eman ziren jakitera Teodoro Hernandorena II. Ipuin Lehiaketako sarrituen izenak. Orain, berriz, lan sarituekin liburuxka kaleratu du Zizurkilgo Udalak, herenegun izan zuten argitalpenaren aurkezpena.

ADUNA ▶

Erenguea txotxongiloak gaur Adunan

Oraingo honetan haurren txanda iritsi da Adunako ekitaldien egutegian, izan ere, etxeko txikienentzat emankizuna antolatu dute herrian. Erenguea txotxongilo taldea izango da gaur liburutegian. Txotxongilo ikuskizuna, lau eta hamar urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da. Erenguea taldea, 17:00etatik aurrera egongo da Adunako liburutegian.

VILLABONA ▶

Amodio gutun eta ipuin lehiaketako sari banaketa

Gaur plazaratuko dira, Manuel Larramendi bazkunak eta Villabonako Udalak antolatutako V. Amodiozko Gutunen eta Ipuinen Lehiaketako sarrituen izenak. Horretarako ekitaldia prestatu du Manuel Larramendi kultur bazkunak. Sari nagusiak emateaz gain, billabonatar onenaren izena ere gaur zabalduko da. Sari banaketa, 19:30ean izango da, Villabonako Udaleko batzar aretoan.



LIZARBI
Kutxa, mahai, aulki etab.
Altzariak Zurgintza orokorra
Tailakeskuz eginak Zaharrien berriztatzea
San Esteban auzoa
Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

HEZKUNTZA ▶

Haur Eskoletako matrikula epea irekita astelehenetik

Hilaren 28ra bitartean irekita egongo da matrikula epea hainbat herritan

BIANDITZ IRAOLA

Datorren irailetik aurrera Haur Eskoletara umeak eraman ahal izateko matrikula epea astelehenean ireki zen, eta zabalik izango da hilaren 28ra bitartean.

Partzuergoak Tolosaldeko hainbat herritan lan egiten du udalekin elkarlanean, eta aurreko urteetan izandako Haur Eskolez gain aurten beste bi herri gehiagotan izango da aukera hori. Orain arte haur-eskola izan dute Orendainek, Berastegik, Elduainek, Irurak eta Lizartzak. Datorren ikasturte-tik aurrera Baliarrain eta Anoetan beste haur-eskola bana izango da 0-3 urte arteko haurerentzat.

Herri hauentzat ezezik, inguruko herrietako biztanleek ere baliatu ahal izango dute zerbitzu hau; Orendainen, adibidez, Abaltzisketa eta Amezketa haurrak ere izan ohi dituzte.

Izena eman nahi duten gurasoek lehen aipatu herrietako udaletxera joatea besterik ez dute, bertan emango zaizkie bete behar dituzten baldintzen berri, eta eskaera egiteko inprimakiak. Informazio gehiago nahi duenak ere berdin egin



0 eta 3 urte bitarteko haurerentzat izango dira haru-eskolak. LEIRE MONTES

dezake. Udaletxeetan Haur Eskolen ezaugarriak agertzen eta ematen dituzten zerbitzuen berri izango dute.

Orokorrean, abuztuan izan ezik, urte guztian irekita egongo dira Haur Eskolak. Egunean haurra bost orduz baino gutxiago utzi nahi bada, 135 euro ordaindu beharko dute gurasoek, eta gehiago badira, 180.

Baldintzen arabera

Gurasoek, izena ematera joatean, ondorengo dokumentuak eraman beharko dituzte: matrikulatu nahi den umearen famili liburuaren fotokopia, erroldatze egiaztagiria, seme-alaba gehiago izanez gero, haien familia liburu fotokopia, elbarritasunik balego hori ziurtatzen duten dokumentuak, eta Pertsona Fisikoen Errentaren Aitormena.

Behin postua ziurtatu ondoren beste dokumentu batzuk aurkeztu beharko dira matrikula egin ahal izateko. Berez nahiko plaza izango dira denentzat, baina baremo baten arabera haur bakoitzari puntu batzuk banatuko zaizkio, eta horren arabera izango dute lehentasuna.

ANOETA ▶

Mikel Errazkinen herriaren gaineko hitzaldia gaur

Gaztetxearen V. urtemugako egitarauen barruan hitzaldi bat antolatuta dute gaurko. Mikel Errazkin herriko semeak Anoetari buruz jardungo da, 19:00etatik aurrera. Bestalde, bihar egingo da txupinazoa, ekitaldiz betetako astebukareri hasiera emanez.

ANOETA ▶

Begiraleak behar dira udaleku eta txangoetarako

Anoetako Udalekuek begiraleak behar dituzte, udaleku ireki eta aterpe batera egin beharreko irteera baterako. Interesatuak udaletxeetan dute informazio gehiago. Bestalde, udaleku horietarako izena eman nahi duenak ere udaletxera jo behar du. Kanpora egin beharreko txangoa, berriz, Errezilgo Artaunso aterpera izango da, uztailaren 29tik 26ra. Begirale moduan, edo aktibitateetan parte hartzeko izena emateko epea datorren asteartean bukatzen da. Udalekuak LHko lehen mailatik seigarrenera bitarteko haurerentzat izango da, aste osoko irteera, berriz, LH3 eta DBH1 bitartekoentzat.

HERNIALDE ▶

Irudi digitala tratatzeko ikastaroa

Hernialdeko KZgunean mintegia izango da bihar. *Irudi digitalen tratamendua I* izenburupean, argazkiak nola atera, eta ondoren ordenagailuz ikutuak egiteko sekretuak azalduko dira. Mintegia 9.00etatik 13:00etara izango da.

IRURA ▶ KULTUR ASTEA

Kultur Asteak aurrera darrai jubilatuen ibilaldi eta hitzaldi batekin

Argazki lehiaketan egindako lanak ikusgai daude ikastolan

B. IRAOLA

Irurako Kultur Asteak aurrera darrai. Atzo herriaren bideoaren aurkezpena egin bazuten, gaur jubilatutako izango dira protagonista nagusiak.

Izan ere, bi ekitaldi antolatuta dutez gaurko, eta biak ere u-

rei zuzendua izango da. 16:15ean ibilaldi neurtuari hasiera emango diote. Plazan izango du abiapuntua, eta herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

17:45ean berriz, hitzaldi bat izango dute, Aulas Kutxa Gipuzkoak antolatuta. Moira Ce-

berio izango da hizlaria, eta *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako giltzarriak* izango du titulutzat. Zaharren Biltokian izango da hitzaldi hori.

Bestalde, ikastolan erakusketa bat zabaldu dute joan den larunbatean haurrek argazki

lehiaketan atera zituzten argazkiekin. Astebukara gerturatzaz bat haurrek geroz eta protagonismo handiagoa hartuko dute, bihar ipuin kontaketa izango baitute, eta larunbatean xake jardunaldiak izango dituzte. Irura eta Anoetako 55 haur izango dira xakean nola jokatu ikasten.

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...



UZTURPE

UDAL HAUR ESCOLA

0-3 urte

Izen ematea:
UZTURPE IKASTOLA

Tel.: 943 67 12 99

Ordutegia goizetan: 9:00 - 12:30
Arratsaldetan: 14:30 - 18:00



Ibarra Udalak

BERROBI ▶ XIV. KULTUR ASTEA



Berrobiko eskolako maila guztietako haurrek abestiak, dantzak, eta antzerkia eskaini zituzten. Jendez gainezka izan zen Etxola. HITZA

Herritarren gustuko

Partaidetza ona izan du aurtengo Kultur Asteak; besteak beste, Belauntzaran sukaldariaren erakusketak arrakasta handia izan duela azpimarratu dute

DANI GIBELALDE

Gustura dira Kultur Aste-ko antolatzaileak, joan den astean egindako era askotako ekitaldiak nola atera diren ikusita. «Astean zehar ekitaldiak egiteak bere erazgozpenak dituen arren, herritar askok lana egin behar dutelako... jendearen partaidetza ona izan da». Oro har, adin guztietako jendeak aurkitu du gustuko ekitaldiren bat edo beste.

Besteak beste, ostegunean Iriarte jatetxeko Felix Belauntzaran berrobitarrek eskaintako sukaldaritza erakusketak izandako erantzun ona azpimarratu dute. 50 bat lagun bildu ziren Bide-Ona elkarte gastronomikoan; lehen aldia zen horrelako zerbitu antolatzen zutela, eta ordu eta erdi iraun saioa «aberasgarria» izan zen herritarrentzat. Belauntzaranek zenbait plater prestatzeko azalpenak eman zituen pausoz pauso, eta jendeak adi-adi jarraitu zituen haren esanak. Plater batzuek pixka bat aurrez prestatuta eraman zituen, eta beste batzuk bertan egin zituen. Honako platerak egin zi-

tuen Belauntzaranek: legatz pastela, mahuka kizkurtaileko pasta, gazta budina, eta entsalada epela antxoekin. Ekitaldira agertu zirenek errezetak eraman ahal izan zituzten etxera. Jendea pozik geratu zen ekitaldiarekin; amaieran, Belauntzaranek egindako lau platerak zozketatu zituzten. Era berean, kultur taldekoek oroigarri bat eman zioten sukaldariari egindako lanarengatik.

Ostiralean Berrobiko eskolako maila guztietako ikasleak izan ziren Etxolan; aretoa bete-beteta izan zen haien ikuskizunak ikusteko. Koreografia ongi landuta, dantza, abesti, eta antzerki desberdinak egin zituzten. Aipagarria izan zen ekologiararen inguruan egin zuten antzerkia. Gizakiak eragiten duen kutsadura eta naturari egiten dion kalteetaz hausnarketa egitera bultzatu zuten. Amaieran, literatura lehiaketako sari banaketa egin zuten.

Larunbatean Urreburuko gaztetxoaren artean pilota partiduak izan ziren. Toka Txapelketa ere bai. Udaletxe aurrean, txakoli eta sagardo dastaketarekin amaitu zen aurtengo Kultur Astea.



Felix Belauntzaran, ostegunean, orogairria jasotzen. HITZA



Larunbatean egin zen txakoli eta sagardo dastaketako une bat. HITZA

IBARRA ▶

'Hitzak patriketan' antzezlanaren bihar Kultur Etxean

Bihar, 17:00etan, Hika antzerki taldeak *Hitzak patriketan* haurrentzako antzerki-emaldia eskainiko du Benito Izagirre kultur etxean. *Hitzak patriketan* haur txikiarentzat idatzitako antzerki-lana da. Barbara Kakalardoak, Agustina oiloak eta Pepa txikiak bidaia bat proposatzen dute izenen, zenbakien eta koloreen magia aurkitzeko. Hiru kontakizun pedagogiko dira, irudimenez eta umorez betetak. Kutxa Gizarte Ekintzak babestutako emanaldia da biharkoa.

IBARRA ▶


'Airbag' filmea gaur Gaztetxeko zine-klubean

Airbag film espainiarra eskainiko dute gaur Gaztetxeko zine-klubean, 21:30etik aurrera. Sarrera doakoa izango da. 1997an Juanma Bajo Ulloak zuzendutako filme umoretsu horrek ia bi ordu irauten du.

BELAUNTZA ▶

Piragua eta 'rafting' irteera antolatu dute

Ekainaren 5erako eta 6rako Iparraldeko Bidarrai herrian piragua eta *rafting* jaitsierak antolatu ditu Udalak. Nafarroako Nabarteko aterpean igaroko dute gaua. Ekainaren 5ean, 08:00etan izango da irteera Andreseneko bidegurutzetik. Itzulera, berri, ekainaren 6an izango da, arratsaldean. Prezioa 30 eurokoa da, eta izena emateko orduan ordaindu beharko da. Prezioan, bidaia, piragua eta *rafting*-eko materiala, monitorea, seguroa, larunbateko afaria, lo egitea eta igandeko gosaria sartzen dira. Izen-ematea maiatzaren 28a arte dago zabalik, Kultur Etxean. Izena emateko unean asteburuko irteeran eraman beharreko gauzen zerrenda emango dute.



HONEKIN ileapaindegiarekin elkarlanean, Tolosaldeko **HITZAK** zozketatutako ileapaindegiko zerbitzu osoa, ilearen tratamendurako bi produktu eta Solarium-eko 10 saioko bonoaren irabazlea: **Lurdes Jauregi (Tolosa)**

ALBIZTUR ▶ KULTURA

Larunbateko bertso afariarekin hasiko da Kultur Astea

Kultur Asteari hasiera emateko gaurko antolatuta zegoen hitzaldia asteartera, maiatzaren 25era, atzeratu dute

OLAIA ESKITXABEL

Gaur zen hastekoa Arkaitz elkarteak eta Albizturko Udalak elkarlanean antolatzen duten Kultur Astea; pilotarien hitzaldia zegoen antolatuta gaurko. Hala ere, arazo desberdinak medio, datorren asteartera, maiatzaren 25era, atzeratu behar izan dute hitzaldia.

Gauzak horrela, etzi, larunbatean, emango zaio hasiera Kultur Asteari; Arkaitz elkartearen bertso afaria antolatu dute ordurako. Anjel Mari Peñagarikano eta Maialen Lujanbio bertsolariak gonbidatu dituzte 20:30ean hasiko den bertso afaria.

Datorren asteartean, maiatzaren 25ean, pilotarien hitzaldia izango da aurretik zehaztu bezala. Arkaitz elkartearen hitzaldia eskainiko dute Abel Barriolak, Mikel Goñik eta Anizeto Lazkanok.

Errenta aitortpena egiteko epea dela ikusita, hainbat gomendio eta azalpen luzatuko ditu Aitor Berasaluze adituak.

Kultur Asteari amaiera emateko herriko mugetatik zehar ibilaldia antolatu dute. Hori datorren igandean, maiatzaren 30ean, izango da. Ibilaldia, Benta Berritik Santutxora izango da; herriko plazatik abiatuko dira. Ondoren, hamaiketako izango da ibilaldian parte hartzen dutenentzat.



Herriko plazatik abiatuko da datorren igandeko, maiatzaren 30eko, ibilaldia. Argazkian, Erniopeko marbxako partehartzaileak ikus daitezke Albizturko plazan jarri zuten janari postuan. J.SAIZAR

KULTUR ASTEKO EGITARAUA ▶

LARUNBATA (MAIATZAK 22)

Bertso afaria. Arkaitz elkartearen, 20:30ean. Bertsolari gonbidatuak: Anjel Mari Peñagarikano eta Maialen Lujanbio.

ASTEARTEA (MAIATZAK 25)

Pilotarien hitzaldia. Arkaitz elkartearen, 20:00etan. Partehartzaileak: Abel Barriola eta Mikel Goñi eta Anizeto Lazkanok.

OSTIRALA (MAIATZAK 28)

Errenta aitortpenari buruzko hitzaldia. Kultur etxean, 20:00etan. Hizlaria: Aitor Berasaluze.

IGANDEA (MAIATZAK 30)

'Herriko mugak ikusteko ibilaldia.' Ibilaldia herriko plazatik abiatuko da. 8:00etan. Ondoren, hamaiketako izango da ibilaldian parte hartzen dutenentzat.



Zahartzaroko gaixotasunak

ORENDAIN ▶ Zahartzaroko gaixotasunak ezagutu eta horiei aurre egiteko gomendioak luzatu zituen atzo Erretore Etxean Izaskun Arrillaga hizlariak. Kutxako Urrezko Zerbitzuak eskaintako hitzaldia izan zen; zahartzaroko gertatzen diren aldaketak, gaixotasunak antzemateko pausuak, geriatrico gaixotasunen ezaugarriak, gaixotasunen aurrean jarraitu beharreko prebentzio neurriak eta, azkenik, balorazio kliniko osoa egiteko aholkuak izan zituzten entzугai. O.ESKITXABEL

BIDEGOIAN ▶ GIZARTEA

Antzerki saioa, jardunaldiak amaitzeko

'Ugaztun baten nahiak' antzezlanaren eskainiko du Teresa Lopez de Munainek

O.ESKITXABEL

Bihar emango zaie amaiera astelehenean hasitako XXII.Emakume jardunaldiei.

Komunikazioa eta adiskidetasuna izan zituzten hizpide astelehenean; atzo, beriz, autostimaren garrantziari buruzko hitzaldia izan zuten entzугai eskola zaharrean.

Eta esan bezala, bihar, emango zaie amaiera aurten-

go jardunaldiei. 'Ugaztun baten nahiak' antzezlanaren antolatu dute. Teresa Lopez de Munain aktoreak eskainiko du antzezlanaren eskola zaharrean; 15:00etan izango da hitzordua.

XXII.Emakume jardunaldietan parte hartu duten herritarrek bihar Kontzejuan egingo den afaria joateko aukera izango dutela azaldu du Udalak.

MANDIO ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

Tolosa. Korreo kalean 70 m²ko ebebizitza salgai, kanpoaldera begira. Balkoiarekin. 31.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Laskorain kalean ebebizitza ugari salgai, 3 gelakoa 34.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Iurre auzoan etxe abikia salgai; lorategia, terraza eta bimenetaz hornitua. Polita. 76.000.000 pzt. 669 87 19 09.

Tolosa. Erremeritari kalean apartamentuak

bi logela eta logela bakarrekokoak. Bi logelakoak 26.500.000 pzt eta gela bakarrekokoak 23.500.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Foruen etorbidean aparteko ebebizitza, garaje marrekin; bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Kondoko aldapan ebebizitza salgai, 90 m²koa eta kanpoaldera begira. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Bidebietan ebebizitza salgai, egongelarekin eta sukaldearekin. Bizitzera sartzeko prest. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Solana kalean ebebizitza salgai; bista ederrak. Berritzeko. 23.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Trianguloan garaje marra salgai.

Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan. Mandio. 669 87 19 09.

Ibarra. Julian Gaiarre kalean 3 logelako ebebizitza salgai. Bizitzera sartzeko prest. Apartekoak. 33.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Ebebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.

Alegia. Bigarren eskuko ebebizitza salgai. Mandio. 669 87 19 09.

Amezketeta. Duplexa salgai; 70 m²koa, eraiki berria, igogailua eta berogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

Zizurkil. Ebebizitza salgai, garajea, bokoa eta baratza. Bista zoragarriekin. 40.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Lasarte. Ebebizitza berria 98 m²koa; garaje ibiarekin eta 22 m²ko terrazarekin. 57.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Elduain. Etxe abikia 4 gelakoa eta 2 solairukoa. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa inguruan. Borda salgai. 4.000 m²ko terrenoarekin, zuhaitzez inguratuta. Bista ederrak. Mandio. 669 87 19 09.

Gorriti. 1.500 m²ko lur saila salgai. Mandio 669 87 19 09.

Gaintza. Etxe bifamiliarrak eraikitzen ari dira. 39.800.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Aia. Azken ebebizitza. Ingurune naturalean hondartzatik 15 minutura, bi gelakoa apartamentuak; garajea aukeran. 29.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

Corella. Etxe abiki rustiko berriak, portbarekin, 2 gela, bainua eta sukalde hornitua. Berria. 1.000 m²ko terrenoarekin. Mandio 669 87 19 09.

Aro. Errioxan ebebizitza salgai, 75 m²koa eta hiru gelakoa 16.000.000 pzt. Mandio. 669 87 19 09.

LOKALAK

Tolosa. Nafarroa etorbidean 71 m²ko lokala salgai. 669 87 19 09

Tolosa. Taberna salgai, bezeroekin; prezio interesgarrian. Mandio. 669 87 19 09.

Tolosa. 428 m²ko pabiloi berria, ate bikoitzarekin eta sarbide egokikoa, saihesbidea ondoan. 669 87 19 09.

AGENDA ▶

DEIALDIAK


Anoeta. Mikel Errazkinen hitzaldia Anoetari buruz. Gaztebean 19:00etan.
Ibarra. *Airbag* filma Gaztebean 21:30ean.
Irura. Jubilatuen ibilaldi neurtua herrian zehar 16:15ean eta Moira Ceberioeren *Komunikazioa eta adiskidetasuna: bizimodu osasuntsurako hiltzarriak* hitzaldia 17:45ean Zaharren bitokian. Ondoren jokuetako sari banaketa eta *lunch*.
Tolosa. Arnaldo Otegi Batasunako bozeramaileak hitzaldia eskainiko du Bonberenean 20:00etan.
Tolosa. Berrobiko ikasleen *Juul* antzerkia 18:00etan Haur Liburutegian.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalez. Jubilatu Elkarteak.
Hernialde. Olivia Sanchez. Akuairelak Ostatuan.
Irura. Pintura eta egurlantze tailerretako ikasleen lanak ikastolan.
Tolosa. Anjel Cuerdoren argazkiak Aranburun.
Tolosa. Soto eta Zulueta margolanak Lanbroan.
Tolosa. Mariñe Iparragirre. Saikin tabernan.
Tolosa. Juul erakusketa. Haur Liburutegian.
Zizurkil. Sukru Karakus. Atxulondo kultur etxean.

Apaiz bertsozaleak

TOLOSALDEA ▶ Eskualdeko hainbat apaizek bertsolariarekin duten harremana jorratu dute azken 'Bertsolari' aldizkarian



Ezkerretik eskuinera: Jose Mari Aranalde, Pello Zabala, Imanol Aldaregia, Juan Jose Garmendia eta Joxe Agirre apaizak. BERTSOLARI ALDIZKARIA

JOXEMI SAIZAR

Eliza eta euskara, euskara eta bertsoa, bertsoa eta eliza beti uztartuta izan dira. Otoitz egiteko modu egokia izan daiteke bertsoa. *Bertsolari* aldizkariaren azken zenbakiak apaiz bertsozaleei eskaini die tarte handia. Agertzen diren artean Tolosaldearekin zerikusia duten bost daude: Jose Mari Aranalde gazteluarra, Pello Zabala amezketarra, Tolosako Santa Maria parrokian ari diren Imanol Aldaregia oartzuarra eta Juan Jose Garmendia gaintzarra eta Amezketan ari den Joxe Agirre ibartarra. Aranalde Nikolas Ormaetxea *Orix*e idazle handiaren iloba da. Bertsotarako «lilura» etxe-

tik sortu zitzaion, Gazteluko Martintxo bertsolari zaharrari begira, besteak beste. Gai jartzale eta epai-mahaikide bezala aritu izan da urteetan 1982 arte eta bertsolariari buruzko hainbat liburu ditu idatzitakoak: *Bertso kontuak*, *Xalbador pertsubaria*, *Bihotzak dion hura* eta *Xalbadorren barrua*. Bat-batean «lardaskatu-edo» egiten duela dio. Zabalak aita bertsolaria zuen eta Zabala eta Pernando Amezketarra bertsolariaren kastakoa da, aitaren eta amaren aldetik, hurrenez hurren. Bat-batean kantatzeko «etorri txikia» omen du, baina bertsoak idatzi izan ditu eta ezkontzetan sermoia egin izan du bertsoak kantatuz. Bertso doinuak ere sortu izan ditu.

Aldaregiak Lazkao Txikirekin Lazkao mendiko jaietan «bertsotan egindako aitortza» gogoan du. Oartzunen astelehena egiten zen Feria Txikira baserritarrek bildu eta bertso zaharrak eta berriak kantatzen ari zirela «entzutearen poderioz» zerbait ikasi zuela dio. Basarrik, Uztapide, Mitxelenak eta beste hainbatek egindako saioak ere gogoratzen ditu, baina batez ere Xalbadorren bertsoek egin diote «inpresio izugarria». Garmendiari ere familiatik datorkio bertsozaletasuna. Aitak eta anaia zaharrak egiten zuten bertsoan. Lizartzan batez ere eta Orea izan zenean bertsolariarekin harreman estuak izan zituen. Bat-batean «inoiz» kantatu izan du, baina

gehienbat aurrez idatzitakoak kantatu izan ditu ezkontza edo horrelako ospakizunen batean. Bertso sorta bat ere jarri zuen pilotari eskerrak egin zela apaiz eta herritarrek eta batez ere gazteekin lan eginez bere burua deskubritu zuela kontatuz. Agirre bertsolariarekin dute apaizen artean, batez ere Setinen despedidan abestu zituenengatik. Aitona bertso zaharrak kantatzen gogoratzen du eta aitak ere kantatzen zituen. 18 urterekin egin zuen debuta Jose Mari Aranaldearekin. Uda pare batean herriz herri ibili zen alde zurretik prestatutako bertsoak kantatzen jaialdi moduko saio batzuetan. Arrate Irratian ere aritu zen bertsoak kantatzen.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

lepa txo! Larunbatean pulpo pinbo bat zor diguzu. Zorionak Izaro! Laukote.



URTE ASKOAN
Aritz Larreta (Amezketarra).
 Gaur 22 urte.
 Etxekoen partetik.



URTE ASKOAN
 Kaskoa buruan
 eta ibili munduan.
 Zorionak Tube.



URTE ASKOAN
Mari Karmen Egibar (Villabona).
 Muoio poloto bat Haritz, Jokin, Unai eta Harrielen partetik. Amona zoragarria zara.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
 Mila eskert!